



**ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAREN GIZARTE-, KULTURA- ETA KIROL-JARDUERAK
ARAUTZEN DITUEN ESPARRU-ORDENANTZA EGIN AURREKO KONTSULTA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APEL) administrazio publikoen legegintza-ekimena eta araugintza-ahala arautzen ditu VI. tituluari, eta haren helburu nagusia da arauak egiteko prozeduran hiritarren partaidetza bultzatzea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, araua egin aurretik, herritarrek eta haren eraginpean egon daitezkeen erakunde ordezkagarrienek zer iritzi duten jasoko da: ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak, araua onartzeko beharra eta egokitasuna, haren helburuak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Ondorioz, jendaurrean jartzen da, ordenantza arautzailea egin aurretik, memoria hau:

• **Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:**

Arabako Mendialdeko Kuadrillako gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak arautzea, bai eta aplikatu beharreko prezio publikoak ere.

• **Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.**

Arabako Mendialdeko Kuadrillak egiten dituen jarduerak, kulturakoak eta kirolekoak barne, zuzenbide publikoko araubidearen arabera egiten direnez eta sektore pribatuak eman ditzakeenez, jarduera horien truke lortzen den kontraprestazioa prezio publikotzat hartzen da.

Arabako Mendialdeko Kuadrillak hainbat arau eta egintza dituela ikusita, eta horiek eguneratzea eta egungo beharretara egokitzea komeni dela ikusita, beharrezkotzat jotzen da ordenantza bat izatea, zerbitzua ematearen alderdiak eta aplikatu beharreko prezioak arautuko dituenak.

• **Arauaren helburuak.**

- Hauek dira funtsezko helburuak:

Arabako Mendialdeko Kuadrillaren udal-eskumenekoak.

- Jardueren programazioa erregulatzen duten arauak.

- Zerbitzu propioen funtzionamendua arautzea.

- Hirugarrenei emandako zerbitzuen funtzionamendua arautzea.

- Garraioak.



- Jarduerak eta zerbitzuak finantzatzea. Prezio publikoak.
- Materialen prestazioa/alokairua arautzea.
- Hobari fiskalak.
- Udalerrien eta kontzejuen parte-hartzea.
- Gizarte zibil antolatuaren parte-hartzea.
- Erabilera eta portaera okerragatiko zehapenak.
- Ordenantzaren xede diren jardueretan jarduera arrazista eta sexisten aurkako prebentzio-neurriak.

• **Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

Arauzkoak ez diren aukerak baztertu dira, eta, bestalde, toki-erakundeek erregelamenduak egiteko ahala ordenantzen eta erregelamenduen bidez gauzatzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.

HERRITARREN IRITZIA JASOTZEKO EPEA IREKITZEA.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek 15 egun balioduneko epean helarazi ahal izango dituzte planteatutako alderdiei buruzko iritziak, Kuadrillako web-orrian hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

KANALA

Proposamenak helbide elektroniko honen bidez aurkeztu ahal izango dira:

kultura@arabakomendialdea.eus eta, gainera, 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako bideak erabiliz.

ZIOEN AZALPENA:

Arabako Mendialdeko Kuadrilla aspalditik ari da antolatzen eta laguntzen kultura- eta kirol-jarduerak egiten. Hala ere, ez dago ordenantza honen helburu guztiak biltzen dituen irizpide bateraturik.

Hori dela eta, erakundeak publikoki arautu nahi ditu jarduera horiek, haien gauzatzea, prezio publikoak, laguntza- edo antolaketa-estandarrak eta -irizpideak, etab. Alderdi horiek ordenantza baten bidez eta Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren arabera arautzea adostu da. Ordenantza hau, nolanahi ere, premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren



eta efizientziaren erregulazio onaren printzipioen arabera egiten da (39/2015 Legearen 129. artikulua).

Horregatik guztiagatik, eta erakundearen gobernu onerako borondateari jarraiki, Kuadrilla osatzen duten gizarteari, udalerriei eta kontzejuei parte hartzeko bideak ireki eta ezarri behar zaizkie.

Hori dela eta, erakundeak publikoki arautu nahi ditu jarduera horiek, haien gauzatzea, prezio publikoak, laguntza- edo antolaketa-estandarrak eta -irizpideak, etab. Alderdi horiek ordenantza baten bidez eta Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren arabera arautzea adostu da. Ordenantza hau, nolanahi ere, premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren erregulazio onaren printzipioen arabera egiten da (39/2015 Legearen 129. artikulua).

Horregatik guztiagatik, eta erakundearen gobernu onerako borondateari jarraiki, Kuadrilla osatzen duten gizarteari, udalerriei eta kontzejuei parte hartzeko bideak ireki eta ezarri behar zaizkie.

Behar hori gizarte- eta kultura-dinamizazioko zerbitzutik identifikatu bada ere, Kuadrillako arlo desberdinetako teknikari eskudunek egindako ekarpenak jasoko dira. Helburua zerbitzuen eta prezioen ordenantza bateratu bat ezartzeko aukera aztertzea da, aldez aurreko azterketa hori loteslea izan gabe, eta zerbitzu bakoitzak erregulazio propioa ezarri ahal izango du edukiari eta formari dagokienez.

Era berean, Kuadrillako udalerriei, kontzejuei eta sozietate publiko eta antolatuari dei egiten zaie egokitzen jotzen dituzten ekarpenak egin ditzaten ordenantza-proiektu honetan, egiten ari diren jarduerak eta zerbitzuak jasotzeko, bai eta zerbitzuen aldaketak edo hobekuntzak proposatzeko ere.

Aurrekoa kontuan hartuta, Arabako Mendialdeko Kuadrillako zerbitzuak emateko eta kultura- eta kirol-jarduerak eta beste zerbitzu batzuk egiteko ordenantza arautzailea eta fiskala egin aurretik jendaurrean jartzeko epea ireki da.

Presidentea

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz

Euskararen, kulturaren eta
kirolaren ardura duen batzarburua

Unai Saez de Ocariz Samaniego